

## **2020ko OTSAILAREN 11n EGINDAKO GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAKO KONTSEILU ERREKTOREAREN BILKURAREN AKTA.**

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (Lehendakaritzako eraikina, Nafarroa kalea 2, Gasteiz) eta 2020ko otsailaren 11ko 10:00ak direnean, Kontseilu Errektorearen bilkura hasi da, eta honako pertsona hauek bertaratu dira:

- Lehendakaria: Jonan Fernández Erdozia jauna, Agentziako eta Kontseilu Errektoreko lehendakaria, EAEko lehendakariak eskuordetuta (11/2017 Dekretua, apirilaren 25ekoa).
- Kontseilukidea: Monika Hernando Porres andrea, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendaria, Lehendakaritzaren ordezkari.
- Kontseilukidea: Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari.
- Kontseilukidea: Sofía Marroquín Guerrero andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari.
- Kontseilukidea: Patricia Bárcena García andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari.
- Kontseilukidea: Fátima Ansotegi Elordi andrea, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea, Osasun Sailaren ordezkari.
- Idazkaria: Paul Ortega Etcheverry jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria.

Ezin etorria adierazi du:

- Kontseilukidea: Diana Urrea Herrera andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordeko kidea, Eusko Legebiltzarraren ordezkari.
- Kontseilukidea: Eva Juez Garmendia andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide eta Berdintasun Batzordeko presidentea, Eusko Legebiltzarraren ordezkari.
- Kontseilukidea: Alberto Alberdi Larizgoitia jauna, Ekonomia, Finantza eta Aurrekontuen sailburuordea, Ogasun eta Ekonomia Sailaren ordezkari.  
Kontseilukidea: Bittor Oroz Izaguirre jauna, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako sailburuordea, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren ordezkari.

Era berean, gai-zerrendan dauden gaiak aurkezteko laguntza teknikoa eskaintzearren, honako hauek ere bertaratu dira, gonbidatuta: Noemí de la Fuente Pereda andrea, GLEAko Koordinazio Estrategikoaren arduraduna, eta Blanca Pérez Jiménez andrea, GLEAko Administrazio eta



Zerbitzuetako arduraduna. Aurrerago etorriko da bilerara Edurne Bengoechea, GLEAko genero-teknikaria.

## Sarrera

GLEAren eta haren Kontseilu Errektorearen lehendakariak hartu du hitza bertaratutakoei ongietorria emateko, eta bilkurari hasiera eman dio, gai-zerrenda honekin:

1. 2019ko abenduaren 13an egindako aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea, hala badagokio.
2. 2020ko Urteko Plan Operatiboa onartzea
3. Funts Banagarriak onartzea eta, hala badagokio, GLEAren 2020ko aurrekontutik etorkizuneko konpromisoak aldatzea
4. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2020rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea
5. Deialdien behin-behineko egutegia eta irizpide orokorrak onartzea
6. 2020ko proiektuetan aurkeztutako gora jotzeko errekurtsoei buruzko informazioa
7. GLEAko Lanpostu Zerrendaren aldaketa (plantilla handitzea) onartzea
8. Komunikazio Plana eta Genero-ekitatearen aldeko Antolamendu Aldaketaren Plana aurkeztea.
9. Galde-eskeak

Lehendakariak eman dio hasiera bilkurari eta nabarmendu du urteko lehenengo Kontseilu Errektorea dela, eta, beraz, landu beharreko puntu asko daudela, batez ere gai ekonomikoetan.

Saioa hasi aurretik, urteko azkeneko Kontseiluan egindako ekarpenak aipatu dira, ekitaldi berri honen plangintza egitean aintzat hartu diren aldetik.

Hauteskundeak aurreratuta ditugula aipatu da eta, Administrazioaren ohiko jardunbidean eta kudeaketan eraginik ez duen arren, ekitaldi publikoak bai murrizten ditu eta proiektu berrien garapena mantsotu ere egiten du, hala nola AUZO(LAN)KIDEAK proiektua. Patricia Bárcena García andreak AUZO(LAN)KIDEAK proiektuari buruz Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan eta Kontseilu Errektoretan ematen den informazioan sakontzeko eskatu du.

Aipatutako dokumentazio guztia ahal izan den aurrerapenez helarazi zaio Kontseilu Errektore honi.



Gai-zerrendan aurreikusitako puntuez gain, beste informazio-puntu bat gehitzea proposatu da: MINCEX Kuba Protokoloa onartzea; gai-zerrenda zehaztu ondoren bidali zen. Aho batez erabaki da 9. puntuan sartzea.

### 1. Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea.

Bertaratutakoek ohar bat bera ere egin ez dutenez, 2020ko abenduaren 13ko bilkuraren akta onartu da, bertaratu diren guztien aldeko botoekin.

### 2. 2020ko Urteko Plan onartzea.

Dokumentu honetan aurreko dokumentuetatik ondorioztatzen diren 2020rako jardunen programazioa ezarri da, otsailaren 22ko 1/2007 Legearen 18. artikuluan eskatzen denaren arabera. Aurrekontua aplikatzeko ildo orokorrak Dirulaguntzen Plan Estrategikoan bildu dira, eta hurrengo puntuan aztertuko da dokumentu hori.

Jonan Fernándezek adierazi du Kontseilu Errektoreari dagokiola 2020ko Urteko Plan hau onartzea.

Bozkatu egin da eta Kontseilu Errektorearen bilkurara bertaratu diren pertsona guztien aldeko botoekin onartu da.

Gai-zerrendako hurrengo puntuak batera lantzeko proposatu du Jonan Fernández Erdoziak, baina bozketak banaka eginda. Atal bakoitzean adierazi da bozketaren emaitza, akta hau argitze aldera.

### 3. Funts Banagarriak onartzea eta, hala badagokio, GLEaren 2020ko aurrekontutik etorkizuneko konpromisoak aldatzea

2020ko Funts Banagarrien proposamena aurkeztu da onartzeko. Proposamen horretan, Agentziaren zuzeneko dirulaguntzetara eta deialdietara bideratutako zenbateko globalak eta ehunekoak zehaztu dira, baita erakunde bakoitzak eskuratu ahal izango dituen funtsen gehieneko zenbatekoa ere (funts banagarrien % 7).

2019ko abenduaren 27an, Eusko Legebiltzarrak 2020rako Aurrekontuak onartu zituen, 13/2019 legearen bitartez, eta horren ondorioz, GLEaren 2020rako aurrekontua 49 milioi euro da. Aurrekontu horrekin, aurreko konpromisoetako 32,6 milioi euroko zenbatekoari (egikaritzen ari diren dirulaguntzak) eta langileei, funtzionamenduari eta aplikazio informatikoaren garapenari buruzko gastuei egin beharko zaie aurre. 2019ko luzatutako aurrekontutik 1,1 milioi euro



epekakotzat ezarri ditu GLEAk, aurreikuspenaren arabera 2019an ordaindu behar ziren arren, oraindik ere txostenak aurkeztu ez dituzten ordainketak egin ahal izateko.

Deialdi eta laguntza asko urte anitzekoak direnez, diferentziako 13,6 milioi euroekin 42,9 milioi euroko laguntzak eman ahal izango dira erantsitako taularen arabera banatuta. 2020ko dirulaguntza guztietan erakunde bakoitzak jaso ahal izango duen gehieneko zenbatekoa 3.009.267,69 euro izango da (urteko FBen % 7).

Jarraian, Blanca Pérezek ildo bakoitzaren banaketa ekonomikoa azaldu du, oro har.

Azalpen horren ondoren, Paul Ortegak aurtengo deialdien berezitasun nagusiak aipatu ditu eta Afrikarako banaketa bereziki nabarmen du ildo guztien barruan, %25era hurbiltzeko helburuarekin; eta K1erako, K2rako eta, berrikuntza gisa, K3rako baremoak ere aipatu ditu. Era berean, NBE Beketarako Dekretua aldatzeko zain dagoela adierazi da, eta urtean zehar izapidetzea espero dela.

Sofia Marroquínek eta Josu Urrutiak diote erakundeek zailtasunak dituztela Afrikan jarduteko, eta kontinente horretako jarduketetarako araudia berrikusteko/berrinterpretatzeko aukera aipatu dute.

Jonan Fernándezek adierazi du Kontseilu Errektoreari dagokiola proposamena onartzea. Bozketa egin da eta Jonan Fernández, Mónica Hernando, Fatima Ansotegui, Patricia Bárcena eta Paul Ortega jaun-andreen aldeko botoekin eta Sofia Marroquin eta Josu Urrutia jaun-andrearen kontrako botoekin onartu da.

#### **4.- 2020rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea.**

2020rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan 7 laguntza-ildoak ez ezik, zuzeneko lankidetzako ekimenak ere biltzen dira; aurreikusitako diru-kopurua aurreko puntuan azaldu da eta aurreikusitako eskaeren estimazioa eman da, aurreko urteetako ehunekoak aintzat hartuta.

Jonan Fernándezek adierazi du Kontseilu Errektoreari dagokiola proposamena onartzea. Bozketa egin da eta Jonan Fernández, Mónica Hernando, Fatima Ansotegui, Patricia Bárcena eta Paul Ortega jaun-andreen aldeko botoekin eta Sofia Marroquin eta Josu Urrutia jaun-andrearen kontrako botoekin onartu da.

#### **5. Deialdien behin-behineko egutegia eta irizpide orokorrak onartzea**

Ainara Arrietak deialdien egutegiaren aurreikuspena eta deialdiak emateko irizpide orokorrak aplikatzeko proposamena azaldu ditu.



Jonan Fernándezek adierazi du Kontseilu Errektoreari dagokiola deialdien izapidetzeari hasiera eman ahal izateko bi proposamenak onartzea.

Bozkatu egin da eta Kontseilu Errektorearen bilkurara bertaratu diren pertsona guztien aldeko botoekin onartu da.

## **6. 2019ko Lankidetzaren Proiektuetarako laguntzak emateko Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoei buruzko informazioa.**

Paul Ortegak jakinarazi du gora jotzeko 10 errekurtsu jarri direla lankidetzaren proiektuetarako laguntzak emateko 2019ko abenduaren 3ko Ebazpenaren aurka:

7 errekurtsori erantzun zaie eta jakinarazi dira, eta gaur egun, 3 geratzen dira jakinarazi gabe. Errekurtsu guztiak ezesleak dira.

Puntu honetan, koordinatzaileak kezkatuta dagoela adierazi du, gizarte-erlaketarako heziketako proiektuetan luzapenak ezin direlako eman (proiektuen deialdiko 3. kapitulua); araudiaren arabera hori ezin dela egin gogorarazi da.

## **7. Lanpostu Zerrendaren aldaketa (plantilla handitzea) onartzea**

Blanca Pérez andreak jakinarazi du 2020ko aurrekontuaren onarpenean Agentziako plantilla 2020rako handitzea erabaki zela, teknikarien 8 plazarekin eta administrarien 3 plazarekin ekitaldi honetarako. Teknikari-plaza baten aldaketa txostenaren zain dago oraindik kontabilitateko teknikari bihurtzeko eta, horregatik, garapenerako lankidetzako 7 teknikari-plaza aurkeztu dira Kontseilu honetan, eta 3 administrari-plaza.

Jonan Fernándezek esan du Kontseilu Errektoreari dagokiola plantillaren handitze hori onartzea, izapidetzen jarraitu ahal izateko.

Bozkatu egin da eta Kontseilu Errektorearen bilkurara bertaratu diren pertsona guztien aldeko botoekin onartu da.

Jonan Fernándezek gai-zerrendako 8. eta 9. puntuak ordenaz aldatzea proposatu du, hau da, GLEAREN planak aurkeztea eta MINCEX protokoloa.

## **8. Kanpo Merkataritzako Ministerioaren (MINCEX) protokoloa Kuba eta GLEA**

Sinatu beharreko protokoloari buruz alde aurretik igorritako dokumentazioaren nondik norakoak azaldu ditu Paul Ortegak. Kontseilu Errektorearen aurreko bilkuretan jakinarazi zen Kubarekin lanean ari ginela, MINCEX bitartez, Agentziarekin Elkar Ulertzeko Memorandua edo



Lankidetzarako Esparru Akordioa lortzeko. Esparru Akordioaren helburua bi aldeen arteko lankidetzaren baldintza orokorrak zehaztea da, eta erabakitako sektore eta lurraldeetan bi aldeentzat interesekoak diren lankidetzak-ekintzak egiteko oinarriak finkatzea.

Jonan Fernándezek adierazi du Kontseilu Errektoreari dagokiola protokoloa onartzea.

Bozkatu egin da eta Kontseilu Errektorearen bilkurara bertaratu diren pertsona guztien aldeko botoekin onartu da.

### **9. Genero Ekitatearen aldeko Plana eta Komunikazio Plana aurkeztea.**

Edurne Bengoechea GLEAko genero-teknikariak GLEaren Genero Ekitatearen aldeko Plana (2020-2023) aurkeztu digu.

Noemí De la Fuentek Komunikazio Planaren puntu garrantzitsuenak azaldu ditu; planaren helburua Gida Planean aipaturako komunikazio-erronka indartzea da.

Bi planak garrantzitsuak direla adierazi du Jonan Fernándezek, eta lankidetzaren eremuko berriak indartu behar direla, ekintzak itzalpean gera ez daitezen.

### **10. Galde-eskeak**

Ez denez beste gairik planteatu, bilkura amaitutzat eman da. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen (urriaren 1eko 40/2015) 18.2 artikulua lehenengo paragrafoan aurreikusitakoa betez, akta hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran onartuko dela jasota geratu da.

OE. Jonan Fernández Erdozia jauna,  
Agentziaren eta bere Kontseilu Errektorearen  
lehendakaria, EAEko lehendakariak  
eskuordetuta (11/2017 Dekretua, apirilaren  
25ekoa).

Paul Ortega Etcheverry  
Kontseilu Errektorearen idazkaria  
GLEaren zuzendaria